

# Fukushimaren inguruko isiltasuna gainditzen

ARNOLD GUNDERSEN ingeniari nuklearrak Fukushimaz dituen iritziak behin baino gehiagotan jaso ditugu zientziari buruzko atal honetan. Fukushima leherketaz ia inork hitz egiten ez duen honetan, Gundersenek hitz gutxitan laburbildu du hango egoera.

Batetik, ingeniari estatubatuarrek gogorazi du zentraleko 1, 2 eta 3 unitateak kalte izugarriak jasan zituztela eta egun zuloz beteta daudela. Zulo horietatik etenik gabe ari da ura isurtzen eta lurrazpiko urekin nahasten. Ur kutsatuaren zati handi bat Ozeano Barera doa, gutxi gorabehera 300 tona eguneko. Kontuan hartuz istripua gertatu zenetik 1.500 egun igaro direla, 23.000 kamioik meta dezaketen ura isuri da jada itsasora. Orain urtebete ezartzen hasi zen izotzezko hormak porrot egin du, ez baitu ur isurketa eragotzi. Egoera horrek hainbat hamarkada irarungo du.

Bestetik, Japoniako prentsaren jokabidea dugu. Japoniako botere politiko eta ekonomikoek ezarritako isiltasuna gaindiezina dela dirudi. Isiltasun horren azpian mehatxuak eta isunak daude.



Arnold Gundersen.

Azkenik, datu ofizialen inguruko gezurrak aipatu behar dira. Gehienetan, gezurrak akatsak bailiran ezkututzen dira, batez ere datu hotzei buruzkoak. “Garai hartan emandako datuetan huts bat zegoen, baina konpondu egin dugu” gisako argudioak erabiltzen dira.

Hamarkada luzetan hainbat azpiegitura nuklearren kudeaketan inplikazio zuzena izan duen Gundersenen hitzek ekartzen digute Fukushimazko amesgaiztoa behin eta berriro gogora, batez ere Japoniako Gobernuak milaka pertsonari

Fukushima inguruko lurretara itzultzeko baimena eman dienean. “Isiltasun legeak” eragindako operazio estetikitzat har ditzakegu Gobernuak bultzatutako itzulerak; izan ere, hamarkadak behar dira minbizi kasuak azalertzzen hasteko. ■

**Egunero, Fukushimazko isuritako 300 tona ur kutsatu iristen dira Ozeano Barera.**



## Plutonon ur-izotza dagoela uste dute zientzialariek

Uztailean NASAren *New Horizons* espazio-zunda Plutonera hurbildu eta hango argazkiak eta datuak bidaltzen hasi zen. Irudietan ikus daitekeenez, izotzezko mendiak daude Pluton; mendion ezaugarriak kontuan hartuta, zientzialariek uste dute izotz hori urez osatuta dagoela. Oraindik ongi ulertzen ez den jardura geologiko oso aktiboa dagoela ere behatu da.

ttiki.com/340780  
(Euskaraz)

## Zenbat euri egiten du munduan?

2000 eta 2010 artean neurtutako datuetatik abiatuta, AEBetako zientzialari talde batek ezarri du urtero 400.000 kilometro kubo euri egiten duela munduan. Horietatik 116.500, lehorrean. Eta horietatik 45.900 ibai eta erreketan biltzen dira eta gainerakoa lurrindu egiten da.

ttiki.com/340781  
(Gaztelaniaz)

## Tabako pakete neutroa

Parisen egindako bilera batean hamar herrialdetako gobernu ordezkariak lehen urratsak ematen hasi dira tabako pakete neutroa sortzeko bidean. Hau da, tamaina, kolore eta tipografia bereko paketea sortu nahi dute, logotiporik gabekoa. Neurria indarrean dago honezkero Irlandan eta Australian, eta batez ere gazteak erretzen hastea eragozteko du helburu.

ttiki.com/340783  
(Frantsesez)

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16